

# Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK  
MIKEL ERRAZKIN,  
ARANZADI ZIENTZI ELKARTEKO KIDEA

ALIZAKO UDALA



Asaba zaharren  
baratzean,  
Oria Ibarrean...



“Asaba zârren baratza/untzadun ormek esia,/eguzkiak lèn maitea...” idatzi zuen Xabier Lizardik behinola. Ibilbide honen xedea asaba zaharren baratzean murgiltzea da, ondarea ezagutaraztea eta gozaraztea; gerora denon artean zaindu dezagun. Gure herriaren ondarea kultur eta natur ondasunen multzoa da, gure arbasoengandik oinordetzan jaso duguna. Gaur egun arteko historia, obiturak nahiz bizitzeko modua ulertzen eta ezagutzen laguntzen duguna. Ondarea gizakiak sortutako oroitzen kolektiboen eta identitatearen oinarria da, kultura, hizkuntza eta bizitzeko modu zehatz batekin identifikatzeko baliagarria dena. Iraganetik jasotzen dugun ondarea, unean bertan bizi duguna, eta etorkizuneko belaunaldiei utziko dieguna: memoriaren ondare eta ondarearen memoria.

Ibilbidea Anoetako plazan hasiko dugu; XVI. mendeko San Joan eliza kokatua dagoen lekuan hain zuzen ere. Hernialderako bidea hartuko dugu jarraian. Argindegiko baserriatik aurrera ikastolarako bidean, Txulo baserrian eskuinera hartuko dugu; aurrerago eta PR-Gi 13 ibilbideko marka zuri-horiei jarraituz Iturgaitzaga baserrira igoko gara, han, ezkerrean jo eta Isastiko barrutira helduaz. Isastin bidegurutzetako aurkituko dugu, eskuineko bidea hartuko dugu; zuhaitz artean dagoen bide zabal bat hain zuzen ere. Marka horiei jarraitu eta pago handi bat topatuko dugu, mugakide diren hiru udalerrien mugariaren ondoan dagoena eta horien inzialak dituen alegia: Anoeta (AN), Alkiza (A) eta Hernialde (E). Bidea jarraituz Urkullu eta Arraitza baserrietara helduko gara; aurrerago Anoeta eta Alkiza elkartzen dituen errepidera iritsiz. Errepidean ezker norabideari helduko diogu; aurrera egin, eta laster, Haranea bailaran, eskuinera doan auzo-bidea hartu eta Alkizako erdigunera iritsiko gara, Lete oinetxearen aurretik. Herri-gunea San Martin elizaren inguruan eraikia da. Elizaren interesguterik nagusienetakoa Miguel de Irazusta herriko semeak zizelkatutako erretaula da; Euskal herriko eskultura barrokoa ezagutzera eman zuen Aginaga baserrian jaiotako artistak.


Plazatik aparkalekuaren ondoan dagoen Santiago baselizarantz egingo dugu. SL-Gi 6 ibilbideko marka zuri-berdeei jarraituz Etxabe-Txiki baserria atzean utzi eta Txurro mendia (431m) eskuinaldetik inguratuko dugu. Bidegurutzetako batean, SL-Gi 6ko markak utzi eta PR-Gi 13ko marka zuri-horiei segika hasiko gara. Zumitza base-

ria igaro ostean Basozabaleko karobira iritsiko gara. Karobi edo kiskaltzeko labe honetan kare-harria erretzen zen 1.000° C-tan, kare bizia egiteko. Kare bizia soroak ongartzeko, etxeak zuritzeko, bazterrak desinfektatzeko eta arrautzak kontserbatzeko ere erabiltzen zen. Marka zuri-horiei jarraituz emanaz Aginaga eta Saletxe baserrien aurretik igaroko gara. Aginaga baserriaren fatxada nagusian atea inguratzen zuen puntu erdiko arkuaren azarnak ikus daitezke, armari handi eta idi-begi bat haren gainean. Bi eguzki-erloju ere baditu etxe horrek.

Hortik beherantz doan ezkerreko bidea hartuko dugu, berriz Anoetako lurretan barneratuz Aginagazpira

joateko. Aginagazpitik behera bidegurutzetako batera iritsiko gara; pintatutako markei jarraituz zuzen, aldapan gora ekingo diogu. Hurrengo bidegurutzetako eskuinera egingo dugu markei jarraituz. Eskuinera egin aurretik, hala ere, 50 metro aurrera egingo dugu Ateaga baserria bisitatzeko, ez zaigu eta damutuko. Aurrez aipatutako desbideraketan eskuinera eginda Ateagako bordaraino iritsiko gara eta horra helduz baso-pistatik jarraituko dugu, Basagaingo aztarnategia topatu arte.

Basagainen zokomiran aritu ostean bertara igotzeko hartutako bidetik behera egin eta atzera Basagaingo bidegurutzera iritsiko gara;





SONIA SAN JOSÉ



SONIA SAN JOSÉ

Basagain Burdin Aroko herrixka airetik ikusita goian, ezkerrean, eta arkeologoak Basagainen bertan lanean leeroon gainean.



Mugarriaren ondoko pago batek mugakide diren hiru herrien inizialak ditu marraztuak: Anoeta (AN), Alkiza (A) eta Hernialde (E).

bertan PR-Gi 127 ibilbideko markei jarraituz Agirre Txiki bordarako eta Agirreko karobirako bidea hartuko dugu. Bide honi jarraituz Anoetako Elbarrena bailarara helduko gara, eta Sarobe, Agirre, Etxeberria eta Tapia baserriak ikuskatu ahalgo ditugu besteak beste. Tapia baserrian gaudela, trenbidearen gaineko zubia igaro ostean ezkerretara hartuko dugu. Kasu honetan Santiago bidea seinaleztatzen duen gezi horiak jarraituko ditugu Anoetara iristeko. Trenbidearen azpiko bigarren tunela zeharkatzean ezkerretara doan bidexka har-

tuko dugu; hartara herriko plazara Arozetxea baserri paretik igaroaz helduko gara.

### Basagain, Burdin Aroko herrixka

Basagainen (295m) duela 2.500 urte inguru hiruren bat hektareako Burdin Aroko herrixka bat dago. Barruti honek Oriako haran gehiena hartzen zuen. Herrixkak leku estrategikoetan kokatzen ziren, eta leku horietatik lurralde zabala kontrolatzen zuten. Harresiz inguratutako barrutiak ziren. Etxebizitzak egurrekin, lokatzarekin eta harriarekin eraikitzen zituzten.

Etxebizitzaren erdialdean beheko sua zegoen, eta gainerako gelak landarezko armazoiaren gainean egindako lokatzezko hormek banatzen zituzten. Burdin Aroko jendeak, burdinaren metalurgia menperatzeaz gain, zeramikan tornua erabiltzen hasi ziren, eta egurra tailatu eta beren jantziak ehuntzen ere moldatzen ziren. Zereal eta lekadun laborantzak zabaldu ziren. Alea ontzi handietan jasotzen zuten, ondoren eskuz ehotzeko. Ardiak, ahuntzak, behiak eta txerriak hezten zituzten, eta animalia horietatik haragia, esnea, artilea eta lan-indarra ateratzen zuten.

1995. urtetik, Aranzadiko arkeologo talde batek, Xabier Peñalverren eta Sonia San Joséren zuzendaritzapean, udaro indusketa-kanpaina bati ekiten dio Basagain mendiaren gailurrean aurkitu den herrixkan. Herria biltzen zuen harresiaren aztarnak aurkitu dituzte eta orobat etxebizitzak: esaterako, zuta-beetako falkak eta pezoak. Halaber, zeramika-ontzien pusketak berreskuratzen dituzte, gehienak eskuz egindakoak, tornuz egindako gutxi batzuk badiren arren. Nabaria da burdina erabiltzen zela, material horretako pusketak eta zepak aurkitu dira eta. Datazio radio-karbonikoen arabera, herrixka hau duela 2.000-2.500 urtekoa da. Anoetako Udalak talaia apropos honetan sei informazio-panel jarri zituen arkeologia-gune honetaz gozatu nahi dutenei bisitaldi gidatua errazteko.

## Jakingarriak

- ✓ **Jaiak:** Alkiza, Irailak 8: Koruko Andra Maria. Anoeta, Korpus Kristi eta ekainak 24an San Joan.
- ✓ **Garraioa:**
- TSST** (Donostia-Tolosa Tranbia Konpainia) [www.tsst.info](http://www.tsst.info) Tel. 943.36.17.40
- Tolosalde Bus** (Tolosaldea) Tel. 943.65.06.21
- Renfe** (Aldiriko Trena) Anoetan geralekua [www.renfe.es/empresa/cercanias](http://www.renfe.es/empresa/cercanias) Tel. 943.64.96.37
- ✓ **Turismo bulegoa** (Tolosa) [www.tolosaldea.net](http://www.tolosaldea.net) Tel. 943.69.74.13
- ✓ **Produktuen salmenta:**
- Anoetan: Nekazaritza ekologikoa, Sarobe baserrian. Tel. 943.69.14.60
- Alkiza: Eztia, Erlabi. Tel. 943.69.16.07. Babarrunak, Bengoetxea Goikoa.
- ✓ **Jatetxeak:** Ostatu, Alkiza. 943.69.18.36.
- Otsamendi, Alkiza 943.69.01.86
- Goikoetxea, Anoeta. 943.65.10.07.
- Benta-aldea, Anoeta 943.65.40.79
- ✓ **Ostatuak:** Lete nekazalturismoa, Alkiza Tel. 943.69.12.64
- Uruzola nekazalturismoa, Alkiza Tel. 943.67.27.71





Ateaga baserria, goian; Sarobe eta Tapia, eskuinean.

### XVI-XVII. mendeetako Tolosaldeko baserriak

Baserria da familiari izena eta izana eman izan diona. Baserria, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerarako eta familiaren bizimodurako beharrezkoak diren toki guztiak hartzen dituen espazio fisiko eta berezko identitatea duen eraikuntza arkitekturea da.

XV. mendearen amaieran sortu ziren, aurrez zeuden Erdi Aroko etxolen orde, herrialdeko baldintza sozial, ekonomiko eta teknologiko berrien erantzun. Eskualde honetan lehenengo baserrien eraikuntza XV. mendearen bukaeran eta XVI. mendearen lehenengo erdian hasi zen. Garai hartan, tradizio gotikoaren eta errenazimentuaren elementuak tartekatzen ziren. Zura dugu lehen baserri hauen arkitekturaren protagonista nagusia, harizti ugariak zurezko egitura esker-gak egiteko nahi adina material ematen zuten-eta. Barruan, sagardoa egiteko dolareak baldintzatzen zuen espazio guztia. Beheko solairuan aziendak gordetzen ziren hala behar zenean eta

goiko solairuetan uztak, garia eta artaxikia batez ere. Nekazarien bizitokiak ez zuen leku handirik hartzen. Ibilbide honetan errenazimentuko baserridolare mota honen bi adibide bikain ikusiko ditugu: Sarobe eta Arozetxea baserriak. Biek dituzte barnean sagardoa egiteko dolare handietako zurezko zutabe eta habeen egiturako zatiak. Aipagarria da, bestalde, Iturgaitzaga baserriaren harri zizelkatuko leihoburuak, arku konopialen forma dutenak.

XVII. eta XVIII. mendeetan, baserriak berriro egin ziren aurrerapen teknologiko eta bizilagunen behar berrietara egokitzeko. Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan sagardoaren ekoizpena moteldu zen, labore berri eta iraultzaile bat agertzen zen bitartean: artoa. XVII. mendearen hasieran, elementu berriak agertu ziren Anoetako baserrien arkitekturari, hala materialetan nola eraikinen diseinuetan. Ateaga da arkitektura eraberritu duen beste baserri nagusietako bat eta haren aurrealde nagusia Anoetako guztien artean monumentala da. Eraikinak zurez-

ko armazoiaren tradizioari eusten dio, beheko solairuan, leihoen eta arkua- ren inguruan harlandua nabarmen- tzen den arren. Ardatz bertikalean honakoak nabarmen- tzen dira hurre- nez hurren: goiburuko zurezko urki- la alderantzikatua, familiaren arma- rria eta ezkaratzaren aurreko erdi-puntu-ko arku.

Etxeberrria eta Tapia XVII. mendearen bigarren erdian edota XVIII. mendearen hasieran zaharberri- tu ziren baserri handietako bi ditugu. Bi baserriotan ikusgarriak dira teilatu- peak eta horiei eusten dieten zuta- beak eta besoak. Teilatupe edo gan- bara hauetan uztak eta belar-bazka gordetzen ziren eta zurezko egitura- n zeuden hutsuneen bidez aireztatzen zituzten. Aipatzekoak dira zurezko armazoiak eta aurrealdearen goibu- ruan dituzten urkila alderantzikatua- edo astazalkiak, eskualde honetako baserrien arkitekturan soilik ematen den elementua. ■





# INGURU ABENTURA

- Abentura kirolak
- Eskola kanpamak
- Kanpamentuak
- Ospakizunak
- Multiabentura
- Prestakuntza ikastaroak
- Bidaia antolatua
- Bizikleta edo/eta mendi materialaren alokairua
- Aurrekontuak (Neurrira egindakoak)

Harremaretarako telefono zenbakiak: 635 748 947 / 635 748 948 - Tel. eta Faxe: 945 288114  
San Juan kalea 18, 01208 Albeniz - ARABA - [www.inguruabentura.com](http://www.inguruabentura.com) - [info@inguruabentura.com](mailto:info@inguruabentura.com)